

balkei

2006ko URTARRILA,
140. ZENB. DOHAINIK



Arritxu Santamaria

**Hitzarmenetik
konponbidera**

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo, Unai

Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Benat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleike ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	6
ze berri	7
orain hamar urte	11
erreportajea tabakoaren aurkako legearen eragina ..	12
elkarrizketa arritxu santamaria	16
gure zumai zarra jontxu altzibar eizagirre	22
kultura	26
julene azpeitia sariak veronika decides to die	
euskara	30
merkatariak euskara txanpan	
zine forum	33
agenda	34



musika

veronika decides to die

Haize Galarragak
kontakten dizkigu
Zumaian sortu berri den
talde kañeroaren
gorabeherak.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Esan bakarrik ez...

Esan bakarrik ez, eskeini ere egin zidaten zintatxo gorri bat barruko erropi lotzeko. Ez deskuidoan alde egingo zuten beldurrez, urte berrirako suertea ekartzen omen duelako baizik. En fin! Kontxako nikia ere hor nunbait aurreko estropetan edo galdu nuen (oain ATP edo ACTV diran horrekin antikuatuta ere geldituko zan bai), ta bes-terik ezean, ba zinta.

Biniloarekin batera galdu ziran hauts artean. Lourdes Iriondo hil dela ta etxean batzuri kendu diegu pixkat, Gazte gara gazteka, nahizta Itakakoek Euskadi Gazteara CDa bidaliko zuten.

Garapenaren izenean kalitatea galduz dijoa, eta formato digitalaren sarrerak zinean ere halako eraginik izan du. Baina bestalde, danon eskurago daude lan-tresnak, jolaserako, esperimentatuz ikasteko. Eta hor dago Ostarrenan arrakasta, oraindik garapenak guztia penatzen ez duenaren ispilu.

Ni ere begiratu naiz, ta aizu! Ba egia izango da 78ko kosetxa ona zela. Kuadrilako afarian reserbakoa uste det genula, eta hura ere ez zegon txarra.

Ondo eta aurrez erreserbatuta abioia autobusa baino merkeago ertetzen dala ta, Barcelonatik etortzeko Miami-
ra zestan jokatzeraz juteko aina ordu pasata ebidentzian gelditzen naiz. Kobarde? Nahi dezuena deitu, baina nahiago Oierren piraguan kruzatu atlantikoa. Edo luzeegi bada, erreleboka; Luciak izango du "El canto del cisne" o halako dantzan bat! Baina abioian...

...lur hartu det (oraindik emango ez didaten esperantzaz), eta eskerrak. Banoa dana aldrebestu baino lehen. Ixiar ez det ikusi, eta beste zenbait gauza utzi det egiteko. *Saihesbideak zenbat saiheste, Marije. Segi zure bide-
tik, gauza denen gainetik.

*Zorionak Jon, hire ibaian riomundo.

*Alberto, Betizu? Nik ere ni izaten segi nahi.

*Eta Elena; Aupa Etxebeste! Nork berea gobernatzen duen seinale.

Aurreko Baleike elegante asko dator azal gorri-gorriarekin. Hari ere norbaitek esango zion suerte ona ematen duela, eta opa diot. Neri berriz...Santa Klausen berezko jantzi berdea Coca piii (hauei propaganda egitea bakarrik falta zait!) kanpaina bat medio bihurtu omen zutela gorri enteratuta susmo txarra hartu nion azpiko erropen kontu horri. Eta bestelare memori exkaxekoa izaki, ba interes gehiegirik ez detenean... Ahaztu! Bate lokaririk gabe eraman nitun kaltzontziloak!

Horregatik ez nuen nahi urtean errepaso bat egin, aipatu gabe utzitakoez akordatzean nere buruarekin haserretuko bainintzan. Gainera, ezer ikusgarririk egin gabe beren eguneroko lanean dabiltzanak gutxiago al dira ba?

Puff. Eskerrak Gazte Asanbladari buruz idatzi detela!



Eneko Dorronsoro

dani



Hor konpon, Marianton!



xa 2

Oikian bizitzeak baditu bere alde onak ere. Ez daukagu kalerik, eta eraikinek, baserriek, eta bideek kaos organizatu bat osatzen dute. Bakoitzak badu bere helbidea, baina kalerik ez (oso oker ez banago behintzat). Kalerik ez bada, kale izenik ere ez. Ezta azken asteotan kaleen izendapenarekin Udalak eta herritarrek

duen iskanbilarik ere.

Hasi gaitezen Marianton kalearekin. Baditu urte batzuk kale horrek, berria da Zumaiaiko historiari begiratu gero, baina dagoeneko bere nortasuna lortu du. Zazpi-zortzi urterekin umeak ere kokortu egiten dira, gurasoei azalpenak eskatuz batzuetan. 2005eko azken asteetan Marianton kaleko bizilagunek kaleari izena aldatuko zitzaiola jakin zuten, inolako kontsultarik gabe, eta Udaleko Gobernu Batzorde bat aipatuz. Deitura berria Victoriano Arrate. Pentsatu zortzi urteko mutil edo neska kokkor horri izena aldatuko diotela esaten diotela, aurrez ezer galdetu gabe.

–Hemendik aurrera Mikel izan beharrean Iñigo izango zara. Maddiren orde, Ane.

Galdera bat suertatzen zait honelakoetan: zergatik egiten

dituzte gauzak honela? Horren gaizki, alegia. Aurten frankistak Zumaian sartu zirela 70 urte beteko dira eta garai hartan Victoriano Arrate omen zen alkate. Atxilotuta eraman omen zuten herritik kanpora. Horrez gain, demokratikoki aukeratutako lehenengo alkatea da Victoriano Arrate delakoa, eta gogoangarritasunaren garrantziaz kale ederra merezi omen du. Memoriak bere errespetua behar duela, alegia. Ados, memoriak bere tokia behar du, eta ez zaigu ahaztu zer izan zen Gerra Zibila, bizi ez bagenuen ere, zerbait ikasi eta entzun baitugu. Baina gustatzen ez zaiguna, zera da, memoria historikoan urteurrenetan soilik arakatzea. Udaleko agintariak orain jabetu al dira Victoriano Arrate zein gizon "garrantzitsua" izan zen, urteurrenaren atarian? Orain dela zortzi urte, ez al zekiten herriaren historiako pasarte hori?

Idea bururatu eta dekretuz egin dutela iruditzen zait. Gobernu Batzordeak erabaki zuena, 2005eko urtarrilaren 27an, Puntanuetako eraikinen erdiko eremuari Victoriano Arrate izena jartzea izan zen. Ez zen erabaki Marianton kalea aldatzea. Noiz hartu da azken erabaki hau? Frankistak indarrez sartu ziren, eta kalearen izena ere derrigorrean aldatuko dutela iruditzen zait. Paradoxak. Eta onena, bizilagunen paper aldaketak eta gastuak gestoria baten bidez egingo dituztelako zurrumurruak zabaldu dira; ez daukat frogarik. Ez nago prest honelako hanka sartzeko historikoa guztion diruz ordaintzeko. Baina egingo dute, eta gero zera... hor konpon, Marianton!



Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446


Legeak eta aurrekontuak

Ai, ai, ai. Tabakoa, tabakoa. Tabernetan debekua ezartzearen aldekoak galdu egin duzuela dirudi. Ez gara ari inkestaren ondorioez, noski; hor, gehiengoaz zarete, juxtu-juxtu. Baina gauzak nola dauden ikusita... Izan ere, erreportajeaz azaltzen denez, tabernarien gheingoak ez zuten zalantzarik debekatzearen inguruan; bai, ordea, legeak mugak non ezarzen dituen...

Orain ere lan handia egin duzue batzuek. Sekulako parte-hartzea izan du gure webgunek hilabete honetan. Aurrekontuek ezango dute horretan zerikusirik...

Hemen dituzue zeuek emandako iritzi batzuk (zatiak). Izan ere, baduzue eta badago zer esana gai horren inguruan.

INKESTA



IRITZI BATZUK

trujas 2005/12/23 - 08:13 PM
 Erretzia debekatze badue aber zein jutean tabernata..... Don't drink and drive when you can smoke and fly

Baote 2005/12/26 - 01:12 PM
 Ez al da tabakoaren lege berria? 18 urtetik beherakoak tabernatzea debekatu zer lortuko dute, emetzaleak murriztea? Nire ustez 18 urtetik beherakoak ez dute zertan hori jasan beharrik. Murriztu nahi dena emetzale kopurua baldinbada emetza debekatu besterik ez dute. Helburua: tabernetan 18 urtetik beherakoak sartzea galeratzea baldinbada legeari izenburu okerra jarri diotelakoan nago.

IRITZI BATZUK

NORK: pagotza NOIZ: 2005/12/30-16:32 GAI: Bestelakoak

Adostasunik ez zegoela eta, atzoko plenoan PNV-k 2006ko aurrekontuen proposamena atzera bota omen zuen

Ez IUK, ez Izustarik, ez PSOEik eta... ez da EAK ere! Inork ez dio babesa eman PNV-k egindako proposamenari eta bozkatu baino lehen, aurrekontuak mahai gainetik erretiratu dituzte. Azken urteotan ez da horrelakorik gertatu (nik dakidanez, behintzat) eta, momentuz, izako aurrekontuarekin hasiko da 2006. urtea.

Baina ez gehiegi espero. Izan ere, antzerki honen protagonistak ezagututa laister azalduko da bere botoa lenteja plater baten truke zalduko duen aktorea. Katua eta zakarra dirudite, baina gauero elkaren ondoan oheratzen dira, arspalditik.

2006ko udal-aurrekontuak

NORK: Izustami NOIZ: 2006/01/05-16:36 GAI: Ekonomia

2005eko Udaleko azkeneko plenoan aurtengo aurrekontuak estabaidatu eta botatu behar ziren, baina ez zen hala izan, alkateak gaitz kendu egin zuelako gai-zerrendatik. Horren gainean hainbat iritzi azaldu dira komunikabideetan, baita baleike.com honetan ere, eta Izustamik ere bere iritzia adierazi nahiko luke.

PNVk nahiago izan zuen gaitz baztertu bere porrot nabarmena irudikatu baino: bera bakar-bakarrik zegoen (5 botorekin) aurrekontuen alde eta gainerako guztiok (Izustami, EA, PSOE, EB) aurka botatu behar genuen (8 boto). Azkeneko hilabetsotan aurrekontuak gora eta behera gabilta, baina PNV ez da gauza izan inorekin ados jartzeko, ezta orain arte gobernikide izan duenarekin ere (EAREkin). Gure ustez, ordea, aurrekontuena adibide bat besterik ez da, eta oraingo krisi honen jatorria umutiatotik dator, bi urte eta erdian sufritu behar izan dugun jarreraren ondorioa da.

Txikiak iritziak gorabehera, orain arte PNVk oso eroso gobernatu du Udala EAREkin batera, eta nagusikeri jarrera nabarmena erakutsi du beste alderdiekiko; orain arte, PNVk eta EAK nahi dutena egin dute, berraien ustez gehiengo daukanak nahi duena egiten duelako, baita horretarako hermitaren erdiak baztertu behar badira ere. Nagusikeria horren beste adibide bat alkateak behin baino gehiagotan erakutsi duen jarrera da, azkeneko plenoan ere agerian geratu zena, batzuetan besteekiko batere begirunerik edo errespeturik gabeko gobernikideak horrela mespretxatzen baditu, pentsatu nola jokatu duen oposizioarekin... Oraingoan, ordea, hirigintzako lan batzuk direla medio, gobernikideak haserretu egin zaizkigu, eta PNVk ezinbestean beste norbait behar du aurrekontuak aurrera ateratzeko. Baina ezin esan horretan ahalegin handirik egin duenik, seriotasun handirik erakutsi duenik. Izustamiri dagokionez, PNV ez da gai izan ezta bilera serio bat planteatzeko ere gurekin, eta are gutxiago ezer negoziatzeko. Nagusikeriaz gobernatzen ohibitu, PNVk pentsatzen du nahi duena egin dezakeela nahi duenean, eta hori ez da horrela. Horren adibide da Izustamiri egin zion eskaintza bitxia, aurrekontuak inorekin negoziatu gabe aurrera ateratzeko; aurrekontu orokorren bozketan abstenituz gero, gure emendekin partzialak (kanpo-laguntzarako benetan %0,7 ematea eta euskarazko komunikabideei diru gehiago ematea) aurrera aterako zirela.

webean gehiago...

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
 Tel. 943 860760

Arantza Aramendi

EGUZKI
 G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
 943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS TABERNA
 - APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarteak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

Txapelketaren aparrean

Bertsolarien 2005eko txapelketa nagusiak olatu handi bat eragin zuen Euskal Herriko gizartearen eta olatu hura Barakaldon lehertu zen abenduaren 18an, BEC famatuan jokatutako final handian. 13.000 lagun bildu ziren han, haietako asko sekula saio batean egon gabeak, eta finalaren ondorengo saioetan izugarri nabaritu da bertsolaritza berriz ere gora eraman duen olatuaren aparra. Inoiz baino jende gehiago bildu da Gabonen bueltako saioetan.

Antzeko zerbait gertatu da Zumaian ere. Beldur ziren Bertso Eskolako arduradunak, beti larunbatetan egindako bertso-poteoa ostiralera pasatu behar izan zutelako, Gabonetako jai-egunak zirela-eta. Halere, abenduaren 30ean inoiz baino bertsozale gehiago elkartu ziren Amets Arzallus eta Iker Zubeldiarekin tabernaz taberna ibiltzera, Julian eta Eduk trikitiarekin lagunduta; tabernetan sartzetik ez, balkoietatik abestu behar... Megafoniarekin izan zituzten gorabeheratxo batzuk, gainera, baina horrek bertsotarako gaia eskaini zien behintzat bertsolariei.

Urtarrilaren 7an, berriz, bertsolarien saio oso "gaztea" antolatu zuten Bertso Eskolakoe; 6tik 3 bertsolari, eta aurkezleak ere bai, 18 urtetik beherakoak ziren! Beldur ziren jendeak nola erantzungo zuen, "abizen" handiko bertsolaria ekarri arren -Maialen ARZALLUS, Miren AMURIZA eta Beñat LIZASO- jendeak ez zituelako asko ezagutzen; hiru horiek eta besteek -Unai Gijarrok, Julen Zelaietak eta Unai Gaztelumendik-, ordea, bikain erantzun zuten eta saio gustagarria eskaini zieten Aita Marin bildutako 160 lagunei.



Jendeak ederki pasatu zuen bertsoak entzunez.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitzan, fabriketan eta herriko arzetan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 2
Tel. mugikorra: 608 143409

Emilio Perez
Elektronika, telefonoa eta instalazio
elektrikoen zainketa eta konposaketa

ADI

BASADI 2B
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskainet.net

Bertsopaper lehiaketa

Bertso saioaren atarian **Joanito Dorronsoro VIII. bertsopaper lehiaketako sariak** banatu ziren eta aurten irabazlea Eneko Dorronsoro izan da. Bigarren saria, berriz, Maddi Gallastegik eskuratu du aurten ere; aipamen berezia iazko berari eman zaio baita ere, Igor Albizuri hain zuzen. Gaia "Euskara Zumaian" izan da, guztira 7 lan aurkeztu dira. Jon Maia eta Manu Garate epaimahaikideek batez ere lehen bi sorten maila bikaina azpimarratu zuten. Santelmoetako bertso saioan banatuko dira aurtengo lanak biltzen dituzten liburuxkak -Baleikeko bazkideek ere jasoko dute ale bana-, baina ordura arte zain egon gabe, hemen dituzue Eneko Dorronsoren sortako zenbait ale (osorik eskuratzeko aukera badago www.baleike.com-en):



Txomin Agirrek Amezmenditik
Kresala eta Garoa
ahoz airean galtzen den hitzak
liburutan abaroa
nekazari zein arrantzaleen
iraganean gogoa
bihotza utziz odola mintzo
mingaineraino beroa
euren hizkeran nere menditik
amestu nahi det geroa.

Gerraren Frankok negarra pranko
Espainiaren aldarri
Mertzedario, mertzenario
jator askoak ezarri
hizkuntza eta kultura dira
herriaren ezaugarri
Ikastolaren orru etsia
esperantzaren egarri
berriz lo geran susmotan nago
nahiz orduan iratzarri.

Dotrina eta moralak nakar
nere bide-gurutzera
ezker bidetik gerora noa
bestetik iraganera
ez dit axola zeinetatik jo
biek helmuga berbera
gure karpila borobila da
bueltan elkartuko gera
bere bidean jira-biraka
irrista dadin Euskera.

Antzerkia barrutik

Urtarrilaren 14an hasi zen Txinparta taldeak antolatutako antzerki tailerra. Apirilaren lehena bitartean 17 lagun elkartuko dira larunbatero Alondegian, Inaxio Tolosarekin antzerkiaren nondik norakoak ikasteko.

Antzerkian dauden generoak ezagutzen joateko hainbat ariketa egingo dituzte. Hasieran, berotzeko, sortze ariketen bitartez gorputz adierazpena landuko dute. Bestalde, zenbait ariketetan emozioekin jolastuko dute aurpegi ezberdinak jarritz; triste, lotsati, lotsagabe... Testu batzuk eta eszena batzuk ere landuko dira antzerkian zer egin daitekeen eta nora jo daitekeen jakiteko. Inaxio Tolosak dioenez, "askotan, antzerkian, sorkuntza baino interesgarriagoa da sortze prozesua. Tresna zeu zara eta zeure buruarekin borrokatu behar duzu zerbait lortzeko. Norberari asko eskatzen dio eta taldearen aurrean biluzik agertu behar duzu, askotan besteen laguntza behar baituzu".

Tailerraren helburua ez da izango antzezlan bat plazaratzea ez eta antzerki talde bat sortzea ere, baina Inaxiok dioenez hori

Antzerkia egiteko behar diren oinarrizko ezagupenak irakatsiko ditu Inaxio Tolosak. Inaxiok berak azaldu digunez, "antzerkia oso zabala da: mimoa, komedia, tragedia, inprobisazio hutsa eta kaleko antzerkia egin daitezke. Antzerki tailerrean oinarri bat emango da denetarako balio duena".



taldearen arabera izango da: "Talde animosoa eta martxosoa sortuz gero, egin daiteke zerbait".

Zumaian beti izan da antzerkirako joera. Gerra aurretik bi talde zeuden eta neguan igandero antzezlan bat aurkezten zuten. Herrian izan dugun azken taldea, Kalakariak, azken antzerki tailerretik sortu zen. Elena Irureta eta Inaxio Tolosa ere antzerki tailer batean hasi ziren, Kandido Uranga irakasle zutela. Inaxiok dioenez, "Zumaian zaletasuna badago, baina ez dago ondo bideratua eta ez da erraza talde bat mantentzea. Antzerkia noizean behin agertzen den gauza da".

Inaxiok honela animatu du jendea tailerrera: "aukera asko ez daude eta sorpresa bat da; ondo pasako dugu, dibertigarria eta librea baita".

Gogoratu! Liburu eta Diskoen II. Azoka

Baleike Kultur Elkarteak aurten ere liburu eta disko zaharren azoka antolatu du. Otsailaren 10, 11 eta 12an egongo gara, Oxford aretoan. Lortzen den dirua Saharako herriari laguntzeko izango da.



Orain ere bigarren eskuko liburu, disko, komiki, bideo, DVD eta bideo jokoak izango dira salgai. Hain zaharrak ez direnak ere agian edukiko ditugu.

Horretarako, aurretik denak bildu behar dira. Argitaletxe eta elkarte batzuek agindu digute liburu eta disko mordo bat, baina zuen guztion laguntza ere behar dugu!

Aurten ateratzen den dirua, Saharako herriari laguntzeko erabiliko da. Iaz, Sri Lankako Batticaloa hirira biderratu ziren bildutako 4.000 euroak, eta hainbat lan egin da 2004ko abenduko itsasikarak gogor jo zuen lurralde hartan.

Hortaz, otsailaren 4ra arteko epea duzue!

Hautsa kendu eta ekarri zuen liburuak, diskoak, komiki zaharrak...



BALEIKE BLOGAK

Dakizuenez, urtebete pasa da www.baleike.com webgunea abian jarri genuenetik. Urte honetan, zumaiairek bertan izandako parte-hartzea guk espero genuena baino handiagoa izan da eta, horregatik, pauso bat gehiago emateko beharra sumatu dugu.

Oraingoan www.baleike.com/blogak/ gunea sortu berri dugu. Gune honetan, edozein zumaiairedo Zumaiaiko edozein taldek bere weblog propioa sortu, kudeatu eta argitaratu dezake doan, eta inolako lan berezirik egin gabe.

Weblog bakoitzak bere helbidea eta informazio propioa izango du eta norberak nahi dituen berriak, argazkiak, dokumentuak, etab. argitaratu ahal izango ditu.

Zumaiairontzat baliagarria izango delakoan gaude; izan ere, herriko elkarteei, taldeei eta hainbat lagunei eguneroko lana hobeto zabaltzeko aukera emango die.

Baleike blogen aurkezpena: urtarrilaren 27an, arratsaldeko 7etan, Oxford aretoan.

Guztiok gonbidatuta zaudete!!

EPA UROLA KOSTA HHI - HELDUEN ESKOLA PUBLIKOA 2. lauhilabeterako eskaintza (2005-2006)

IZENA EMATEKO EPEA: OTSAILAREN 3A
Ordutegia: 3etatik 7ak arte

ZUMAIA: Txomin Agirre, 3 Tel.: 943 143127

Zumaiako Gazte Asanbladak antolatutako jokoek arrakasta izan zuten gazteen artean...



Ikusten den bezala, jende ugari hartu zuen parte ZUGAk antolatutako jokoetan!



Bat baino gehiago lurrean bueltaka ibili zen twister jokoan jolasten!



Aulki jokoan ere giroa bikaina izan zen!



Makil-jokoan jolastera ausartu zenik ere bazen!



Globoak puskatzen ere bikote asko aritu ziren!



Beste batzuk musean ibili ziren!



Mota guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amara plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

Gazteak: kirolariak, deabruak eta Larraulgo hozberoa

Honezkero ez duzue gogoratuko, baina orain hamar urte Igor Beristain Euskadiko eta Gipuzkoakoa txapeldun izan zen.

Orain hamar urteko Baleiken aritu ginen hartaz, baina baita beste hainbat kontuz ere. Larraulera irteera egin zuten orduan Gazte Batzordeko kide batzuek. Orduko gaxteek gogoratuko dituzte (ditugu) han egindakoak eta bizitakoak: paretak pintatzen aritu ondoren, nekeak ahazteko, batzuk elkarri istorio beldurgarriak kontatzen aritu ziren, laukote bat Orioko festetara joan zen bitartean. Eta beldurra kentzeko onena... etxera berandu heldu ziren parrandazale gizajozteko sorpresa beldurgarria prestatzea... Era askotako kirolak egin ziren Larraulen; baina, zalantzarik gabe, gehien egin zena, estufing-a. Horrez gain, kafe-tertuliak otorduen ostean, hitzaldi interesgarriak... Lastima da gazteek horrelako beste irtenaldirik ez antolatu izana. Ala, horrelakorik egiteko asmorik bai, ZUGA?

Makina bat aldatu dira gauzak, eta Zumaia; edo, bestela, begiratu ondoko argazkiari.

Edo galdetu orduko hartan elkarriketatu genuen euskal-amerikar pilotariari. Izan ere, Unai Zinkunegik bere ibilerak kontatzen zizkigun Ameriketatik, han baitzebilen garai hartan zesta-punta jokalaria; Mexikon, Floridan...

Beste gauza batzuk ez dira asko aldatu. Garai hartan, hika-hitanoaren erabileraz kezkatuta zebilen bat, eta orain ere kezka bera dute askok. Eskerrak Julene Azpeitia sariak jende desberdinak jasotzen dituen tarteka. Guri behintzat, beti jende berak irabazten zuela iruditzen zitzaigun orduan, baita orain ere. Bai, bai, badakit ze esango duzun

inoiz saria jaso duzuenok: beti jende berak parte hartzen duelako izango da, ezta?

Gazteentzako kontzertuak, ordea, ez dira asko izan azkenaldian. Orain hamar urte Oxford infernu bihurtu zuten Deabruak Teilatueta taldeak. Zein diren galdetzen duzue? Galdetu garai hartan Larraulera joandako norbaiti. Eta bide batez, galdetu haiei ere sexualitateri buruz dituzuen zalantzak ere. Izan ere, Larraulen hitzalditxo "praktikoa" eman zuen Luis Elberdin sexologoak, eta sekulako lezioa eman zien Gazte Batzordekoiei. Galdetu, galdetu.



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



TABAKOAREN KONTRAKO LEGEA

Herriko tabernariak noraezean

Herriko tabernetan ibili gara galdezka Tabakoaren kontrako Legearen inguruan eta ondorio nagusi bat atera dugu: inork ez du ondo ezagutzen. Komunikabideak Legearen zorrotasuna azpimarratzen saiatu badira ere, hori da herriko tabernariak jaso duten informazio bakarra.

IURE ALTZIBAR ETA MAITANE AGIRRE

Urte berriarekin batera, guztiok eza-gutu beharko genukeen Tabakoaren aurkako Legea sartu zen indarrean. Hilabete batzuk igaro ditugu horren inguruko informazioa jasotzen hedabideetatik. Izan ere, albistegietan ia egunero erakutsi dizkigute lege honen xehetasunak. Horrez gain, jendeak erretzeari uzteko helburuarekin hainbat ahalegin egin dira. Beraz, egunero hedabideek Tabakoaren aurkako Legeari emandako garrantziak gogortasuna gaineratu dio. Hala ere, esan liteke informazio hau lagungarri eta ezinbestekoa izan dela, askok eta askok horrela izan baitute legearen berri.

Zumaiako tabernariekin hitz egin dugu, beraiek izan daitezkeelako kaltetu nagusiak. Berehala ohartu gara legearen nondik norakoaz gutxi dakitela eta dakitena telebista, irrati eta batez ere egunkarietatik jakin dutela. Bada, aldi berean, Interneten informazio bila aritu denik ere. Horrez gain galdetu diegu ea norbait etorri zaien edo agiri ofizialik iritsi zaien legea-





ren berri emateko. Guztien erantzuna ezezkoa izan da. Tabernari baten esanetan "Inork ez digu esan gauzak nola egin behar diren. Egunkarien bidez jakin dugu. Badakigu legea zorrotza dela, baina inork ez digu ezer azaltzen. Ez dakigu fundamentuzko ezer, ez delako inor azalpenak ematera etorri". Esaldi hauxe izan da, nolabait esatearren, herriko tabernari gehientsuenek errepikatu digutena.

Hala ere, urtearen hasierarekin batera lege honen berri jasotzen ari direla dirudi. Izan ere, urtea amaitu

"Ez dakigu fundamentuzko ezer, ez delako inor azalpenak ematera etorri"

aurretik, bisitatu ditugun tabernetan ez zuten berri ofizialik, ezta iritsiko zelako esperantzarik ere. Tabernari bakoitzak, ordea, bere aholkulariarengana jo behar izan du zalantzak argitzera. Horietako batek adierazi digunez "Ez dakit

aholkulariari informazioa Eusko Jaurlaritzatik iritsi zaion edo berak atera duen beste nonbaitetik". Legeak dioenez, tabernariak txartel homologatuak jarri behar dituzte beraien lokaletan. Batetik, taberna horretan erre daitekeen edo ez adierazten duena. Bestetik, erretzea baitmentzen duten lokaletan jar daitezkeen tabako makinetan ipini beharrekoak. Azken horietan, ezinbestekoa zaie ohartaraztea tabakoak sortzen dituen kalteez eta adin txikioei saltzearen debekuz. Baina gutxi dira oraindik ere kartelak jaso

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak



Herriko tabernariekin hitz egin ondoren, ikusi dugu batzuk besteak baino gehiago kezkatu direla Tabakoaren aurkako Legearen nondik norakoez, baina orokorrean zorroztasunak ez ditu beldurtu. Horrek, ordea, gerora ondorioak ekarriko dituela uste duenik ere bada: "Hilabete batzuetara hasiko dira arazoak, ikuskatzailea

etorri eta erretzen uzteagatik bete beharreko baldintzak exijitzen hasten denean". Hala ere, orain arte bezala jarraituko dutela adierazi digute eta horren adierazgarri da askok errepikatu diguten esaldia: "Ez dugu polizi lanetan ibiltzeko asmorik".

Denborak erakutsiko du zer gertatuko den Zumaia tabernetan!

dituztenak eta horren ondorioz tabernariak beraiek egindakoak erabiltzen dituzte. Gainera, pertsona batek adierazi digunez, kartel horiek ordaindu egin beharko direlako susmoa du.

Ikusi ahal izan dugun beste ezberdintasun bat tabako makinaren ingurukoa izan da. Izan ere, legea

Legeak dioenez, tabernariak txartel homologatuak jarri behar dituzte beraien lokaletan.

indarrean sartzearekin batera hainbat lokaletan makinak publikitate estali dute. Bestalde, tabakoa saltzeko asmoa duten tabernetan ezinbestekoa izango da makina jar-tzea. Gainera, tabernari batek esan digunez "Lehen bost urtetik behin berritzen genituen tabakoa saldu ahal izateko paperak; orain, aldiz,

H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

FARMA ZUMAIA PARAFARMAZIA

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urne eta Haumentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozakoak, Estresaren, Antsetatsaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,.... kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA



"Hilabete batzuetara hasiko dira arazoak, ikuskatzailea etorri eta erretzen uzteagatik bete beharreko baldintzak exijitzen hasten denean"

urtero berritu beharko ditugu. Horrek Gobernuari mesede egiten dio, orain urtero ordaindu beharko dugulako".

Legearen beste puntu garrantzitsu bat lokalaren metro koadroen kontua da. Ehun metro koadrotik behera duten taberna eta jatetxeek

aukeratu egin behar izan dute erretzen utzi edo ez eta ehun metro koadro baino gehiago dituztenek derrigorrezkoa dute erretzaileentzako gunek lokalaren %30 hartuko du (tabernan publikoa den guneara). Horren aurrean, herri-

ko tabernek erretzen uztea erabaki dute; batetik, ez dutelako informazio askorik jaso; bestetik, "Ez delako errentagarria honelako herri txiki batean erretzea debekatzea, jendea ondoko tabernara joango delako". Bestalde, zenbait tabernak ehun metro koadro dituztenez, erre ahal izateko obrak egitera behartuta daude. Baina horiek ere ez dituzte gauzak garbi, ez dakitelako ehun metroak nola kontaktzen diren: taberna bere osotasunean edo publikoari zuzendutako gunek bakarrik (taberna, jantokia...).

garratzen konpainia bereziki garratzen
garratzen: 15m-4m.

GARRAIOAK
Asensio Arretxe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557
Izurtari, 5-2A (Zumaia) • Aitzpilagata, 16-E (Mondrago)

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

TALAI
INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

SIWA
Belardenda
Basadi 9
943 143404

- Eliokadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

Arkupe
Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

arritxu santamaria bidasoro hitzarmenerako mahaiaren koordinatzailea

"Hitzarmena, konponbidera ko itxaropena"

ITSASO IBARRA ETA ITZIAR MORA

Zumaian jaioa, bere aurrekoak jaio ziren etxe berean. Gaztetatik Zumaiatik kanpora ibili da: hasieran hizkuntzak ikasten, eta, gero, ikasketan egiten, Bilbon. Historian doktorea da eta lau hizkuntza dakizki: euskara, frantsesa, ingelesa eta gaztelania. Hainbat lanbide izan ditu, baina, 2004tik, Hitzarmenerako Mahaiaren Koordinatzailea da. Berarekin hizketan aritu gara, Talai-pe jatetxean, goxo-goxo.

Zer da Hitzarmenerako Mahaia?

Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa izenpetu zutenek osatzen dute. Une honetan, sei alderdi politikok (EA, AB, Batasuna, Zutik, ANV, Aralar), sindikatuen bi ordezkari eta gizarte eragileen hiru ordezkari osatzen dute Hitzarmenerako Mahaia. Mahai horren ekiteko modua, metodologia, guztien parte-hartzean oinarritu izan da denbora guztian.

Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa... zer da? Zer jasotzen da bertan?

Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Batzordea eratu genuenenean, ordura arteko esperientziak bildu eta hainbat irakaspen atera genituen: esparru politiko, sozial eta sindi-



kal guztiek izan behar genuela gatazkaren konponbidearen parte; blokeek irtenbidea oztopatzen zutela, Lizarra-Garaziren garaian bezala; nazioarteko bermearren garrantzia; etab.

"Gatazkaren konponbidea lortu behar da, Euskal herrian zerbait eraiki nahi bada"

Oso testuinguru zailean hasi ginen. Eragile gehien artean mesfidantza zen nagusi, eta etorkizunari buruzko etsipen ikaragarria; eta nik uste sinetsi ere ez zela egiten une hartan, posible zenik irtenbide bat.

Esparru politiko osoarekin izan genituen harremanak, PPrekin izan ezik. Nafarroan ere bai, bai eta Iparraldean ere -Frantzia PPrekin homologo direnekin-. Gizarte eragileekin bilerak egin genituen. Eliza katolikoaren ordezkariekin ere elkartu ginen; Elkarrirekin...

Guk, orduan, gure diagnostikoa azaltzen genien, nondik zetorren gure ustez konponbidea. Alegia, Euskal Herriaren aitortzea, eta prozesu integratzaile bat hastea, guztien artean, konfiantzak eraikiz. Horrela, ekarpenak eta adostasunak biltzen joan gara.

OHDa lortzeko lana egin zuena, beraz, ez zen Hitzarmenerako Mahaia izan?

Ez, ez, ez. Gatazka Konpontzeko Batzordeak egin zuen. Eta horren lana bukatu zen OHD izenpetu zenean, baina ez bere helburua. Bere helburua Konponbiderako Mahaia zen. Nahikoa ez zegoenez Konponbiderako Mahaia osatzeko, bitarteko bat osatu zen: hori Hitzarmenerako Mahaia izan zen.

Eta zer moduz moldatu zarete? Jendeak ba al zuen gogorik hitzarmena egiteko?

Lan handia izan zen. Lehenengo harremanetan, etsipena eta mesfidantza izugarriak ziren. Izan ere, Euskal Herriak

HISTORIA APUR BAT

Santamaria: "2003 urtea: garai txarra Euskal herriarentzat, etsipen garaia. Udalbiltzak, hausnarketa prozesu baten ondoren, jendea biltzea erabaki zuen. Horrela, afiliazio zehatzik gabeko jende multzo bat bildu zuen. Talde horrek diagnostiko baten beharra zegoela pentsatu eta halaxe egin zuen. Ondorio gisa, bi proposamen egin ziren: Euskal Herriaren eraikuntza bermatzeko plana, eta gatazkaren konponbiderako proposamena. Gainera, ondorio garbi bat atera zuen: gatazkaren konponbidea lortu behar da, Euskal herrian zerbait eraiki nahi bada". Horrela, Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Batzordea sortu zen, eta horretan ere parte hartu nuen nik. Batzorde horrek konponbidearen bidea zabaltzeko. Abiapuntu bezala genuen gatazkaren parte diren guztien parte-hartzea behar dela, eta beharrezkoa zela printzipio politiko honen onarpena: herri honek bere etorkizuna erabakitze eskubidea duela".

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maitte
ileapaindegia

historia luzea du, baina batez ere desakordioetan. Hasi-
ran, jendeak aurreiritziak egiten ditu. Aurreiritzirik ez
badu, sortu egiten ditu; lehenengo txarrena pentsatu, ziria
sar ez diezaioten edo.

Beldurra al dugu ardurak hartzeari? Edo beste zerbait da?

Nik uste eskarmentuak eragiten duela, frustrazioak; agian,
beldurak ere bai, eta noraezean ibiltzeak. Gure lana kon-
fiantzak eraikitzea izan da, jendeari esatea "bai, konpon-
bidean sinesten dugu, denok sinistu behar dugu; oinarri
hauek dira konponbidea ekarriko dutenak, gure ustez; eta,
edozein modutan ere, guztion artean egin behar dugun
zerbait da". Horixe da, beharbada, zailena sinistarazteko,
guztionean egin behar dugula.

Eta nola egiten da hori sinistarazteko? Bada, metodo-
logia batekin. Metodologia horrek oso zorrotza izan behar
du, eta oso-oso zintzo jokatu behar da. Jendeak ekarpenak
egiten dituenean, ekarpenak hausnartu, sintesia ekarpe-
nen gainean egin, eta, gero, berriz zuk eskaintzen duzuna
izan dadila jendeak argi nahi duena. Esan nahi dut, jen-
deak bere burua ikusi behar duela ordezkatuta zuk eskain-
tzen duzun horretan.

Horretaz gain, badaude interes politikoak. Badago
beste esparru bat ere. Izan ere, Oinarrizko Hitzarmen
Demokratikoa lortzeko sekulako ahalegina egin zen.
Nik uste, Euskal Herrian ez dela inoiz egin horrelako
eztabaidarik, planifikazio maila horrekin, metodologia-
ren elaboratze maila horrekin. Ez dakit ze ondorio eka-
rriko dituen horrek, iritsiko garen –pentsatzen dugu
baietz– gure helburuak lortzera. Baina ahalegin ikara-
garria egin da politikoen, eragileen eta guztien aldetik.
Alde guztietatik. Ezin dugu esan ahalegina gurea baka-
rrik izan dela. Egia da, hala ere, erritmoak eta mailak
desberdinak izan direla, eta direla oraindik, konpromi-
soa lortzeko.

Zer gertatu da Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa (OHD) izenpetu ondoren?

Izenpetu eta gero, hausnarketa bat egin dugu: badugu
OHD bat, baditugu hainbat indar hitzarmena izenpetu
dutenak, baditugu lan handia eta konfiantza maila batzuk
garatuak, baina falta da jendea
hemen. Guk esaten dugu denak
garela beharrezkoak, baina fun-
tsezko eragile batzuk ez daude;
arrazoi desberdinengatik ez
daude: erabaki eta kalkulu poli-
tikoengatik, prozesua oraindik
nahiko heldua ez dagoelako;
askotan beste posizio politiko
batzuetatik abiatzen direlako,
eta hori ere ikusi beharra dago.

Eta zer egin behar dugu
orain? Jarraitu. Lehen esan
bezala, Gatazka Konpontzeko



Batzordea pertsonak osatzen zuten; OHD, berriz, eragile
politikoak, sindikalak eta gizarte eragileak izenpetu zuten.
Hori izenpetu zutenekin sortu zen Hitzarmenerako
Mahaia. Talde horiek guztiek ofizialki eraturako esparrua.
Esparru horrek proposatu zidan niri Mahai horren koordi-
natzaile izatea.

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
francés
euskara
inglantiar
español
cataloniar
suomi
basc
català
finnois
francés
anglés
catalán
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



ad **AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Horrek egindako hausnarketarik handiena honakoa izan zen: guztiena jo behar dugu, horiekin konpartitu behar dugulako orain arte egindakoa.

Eta haiekin ere hitz egin duzue, ez?

Egia esan, konpartitu dugu; egon gara PPrekin, PSEekin..., baina ez zeuden oraindik hitzarmen bat egiteko. Eta hitzarmen hori egin arte ez dago gatazkaren konponbiderako mahairik. Konponbiderako Mahaia osatzeko, guztien parte-hartzea behar zen. Hori ez genuen lortu, baina hori izan da beti gure helburu nagusia; alegia, lehenengo Batzordea eratu zenetik Konponbiderako Mahaia sortzea izanda gure helburu nagusia. Helburu hori lortzeko, bada, berriro jarri behar genuen harremanetan falta ziren haiekin, jarraitu negoziaketan, jarraitu konpartitzen. Hori konpartitu ahal izateko, denbora guztian kontuan eduki behar izan dugu honakoa: OHD ezin zela izan hitzarmen bat inor kalean utziko zuena. Alegia, OHDK oinarri politiko garbi batzuk azaltzen zituen, baina mezu bat ere bai: adostasunera iritsi behar dugu, eta adostasun horrek ez du inor kanpoan utzi nahi. Adostasun horrek zabalagoa izateko bokazio du, besteak onartzeko bokazioa.

Adibidez, EAJ-PNVk OHD izenpetu ez bazuen, ez zen izan hitzarmenarekiko arazo politikoak zeuzkalako, aukera politiko bat egin nahi izan zuelako baizik; PSEk, aldiz, badu beste ikuspegi politiko bat.

Beraz, lanean jarraitu behar dugu horretan, guztiekin hitz egiten.

Zergatik da hain beharrezkoa nazioarteko bermea? Hain beharrezkoa al da kanpoko jendea etortzea?

Izan ere, horixe izan da, agian, hemen egin den akatsetako; alegia, horrek eraman gaituela konponezinera. Esate baterako, futbol partida batean epailea dago; elkarrizketa anitza dagonean, moderatzaile bat. Neutralitatea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Zergatik? Bada, aurretik ere ezaguna delako zer gerta daitekeen bi aldeen artean maila pribatuan egin diren akordioekin: gero, interpretazio desberdinak izan dituzte. Agian, ez asmo txarrarekin, baina bakoitza bere ikuspegitik begiratuta bai; bestalde, inoren testigantzarik ez badago, askoz errazago hausten dira akordioak.

Hemen kontu oso potoloaz ari gara. Ez bakarrik ETA bezalako erakunde baten edo estatuaren arteko elkarrizketaz... Ez, ez, ez, ez; etorkizunean Frantziar eta Espainiar estatuak nazioarte mailan hartu beharreko erabakiez ari gara; izan ere, konponbideak behar dituen bermeak eta behar dituen oinarriak nahitaez eskatuko dute nazio-

arteko legediari, estatuko legediari eta hainbat legeri buruz aritzea. Eta presoak ere hor daude, baita beste hainbat kontu ere... Baina horiek beste arlo batzuk dira. Arlo politikoak behar dituen bermeak, neutralitatea behar



“Eta zer egin behar dugu orain? Jarraitu”

du. Azken finean, gaur egun Euskal Herriak behar duen eskubide bati buruz ari gara, orain arte ukatu izan den eskubide bati buruz. Horrek derrigorez behar ditu bermeak nazioartean.

Ba al duzue asmorik proiektu hauek herrietara eramateko?

Orain arte alderdien arteko, eragileen arteko eta abarren arteko eztabaidak gailendu dira, eta horretan lan handia egin da; orain, berriz, gure asmoa ere bada gizarteari begiratzeari, eta OHK edo, are gehiago, bake prozesuaren oinarriak eta Konponbiderako Mahaia sortzearen aldeko iritzia suspertzeko lana egitea. Horretan ari gara. Iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela momentu honetan, herriko jendea sentibilizatzea eta horiek eskatzen hastea Mahaiaren osaketa. Alegia, gure ustez, jendeak bultzatu behar du prozesua. Garrantzi handikoa iruditzen zaigu jendearen babes hori.

Asmo zehatzik ba al duzue horretarako?

Horretarako, jakina informazioa zabaltzeko lan berezia egin behar da, eta hainbat ekimen abian jarriko dira horri lotuta, herriz herriko lana, herritarren borondatea suspertzen hasteko, nahi duguna eraiki dezagun.

Asmoak baditugu, eta hemendik aurrera gure indarrak horretara bideratuko ditugu, baina oraindik ez ditugu eki-

men zehatzak. Hala ere, herrietan erabaki beharko da zer egin. Nire iritziz, horrelako kontuak adostasunez egin behar dira, eta herriak eta herriko hainbat arlok asmatu beharko du bidearekin. Zuek aldizkariarekin bide bat zabaldu duzue, eta agian horixe izango da onena, eragin-korrena, informazioa bideratzeko.

Momentuz esan dezagun bakarra da Konponbiderako Mahaia osatzeko borondateak handiak direla. Lehenago esan dudan bezala, lan horretan ez gara gu bakarrik ari. Esate baterako, Ibarretxerekin elkartu ginen. Bai bera eta bai gu Konponbiderako Mahaia eratzeko ahaleginak egiten ari gara, baina bi saiakerak ezin dira elkarri talka aritu; elkarren osagarri izan behar dute. Horrela ohartu ginen oinarri politiko berak ditugula: Euskal Herria aintzat hartzea, erabakitzeko eskubidea eta erabakiak adostasunez hartu beharra.

Ados ginen baita ere, Konponbiderako Mahaia osatzeko akordioak, eta hau beti esan izan da, biolentziari gabe-ko testuinguru batean gertatu beharko zirela. Euskal Herriaren ordezkari zabalak izan behar duela, inor baztertu gabe. Eta horrelako puntu garrantzitsu batzuk izan

“Momentuz esan dezagun bakarra da Konponbiderako Mahaia osatzeko borondateak handiak direla”

ez, ez dutelako nahi, baina aurrerago, prozesuan zehar, sartu egin beharko dute.

Hain seguru zaudete?

Bai. Iruditzen zaigu jendeak behartuta edo bultzatuta lehenago edo beranduago bat egin beharko dutela haiek ere.

behar dituela adostu genuen. Beraz, esan dudan bezala, ez gara gu bakarrik ari.

Prozesu guztiak behar dute beren denbora, baina, eta gure iritzia da aukerak badaudela, Konponbiderako Mahaia bat osatzeko eta aurrerantz jo ahal izateko.

Guztiak sartu beharko dute: Orain Hitzarmenerako mahaian gaudenok, PSEK, PPK ere bai... PP oraindik



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPILOKINDEGIA

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, euskal literaturako eleberri batzuk zozketatuko ditugu.

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten... Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.

Lehiaketarako proposamen berri hau jaso dugu Baleiken, eta oso ideia ona iruditu zaigu: ZUMAIAREKIN ETA ZUMAIAKO PARAJEEKIN zerikusia duten galderak egitea. Galderak batzuetan izango dira errazak eta besteetan zailak, ahalik eta jende gehienak asmatzeko, eta, gainera, argazkiak ere jarriko ditugu. Ea zuei zer iruditzen zaizuen!



GALDERA:

Ez dago Zumaiako lurretan, baina oso-oso gertu dago, muga-mugan. Ez da ipotxen etxea, ezta amabirjina gurtzeko lekua ere. Urarekin dauka zerikusia. Garai batean Zumaiara ura hor ingurutik ekartzen zen eta etxetxoak dagoen lekuan azaleratzen zen. Etxe hau ez da bakarra, ordea: bat baino gehiago dago, bidearen alboan, ondo ikusteko moduan. "Etxetxo" hauek bi baserriatik gertu daude. Bi baserriok elkarren ondoan daude, bat Zumaiara eta bestea ez, eta Amerikako hiriburu baten izena daukate.

Nola izena dute baserri horiek?

Erantzunak
elkarte@baleike.comera bidali
edota Baleikeko buzoian utzi
(Juan Belmonte 29 behea)
otsailaren 10a baino lehen.
Erantzunekin batera izen abizenak
eta telefono zenbakia jarri.

Parte hartu eta
zorte on!!

Aurreko hilabeteko irabazleak



- Marisol Esnal
- Iñaki Zubimendi
- Aitor S.
- Arritokieta Serrano
- Ibon Manterola
- Josu Lizeaga

Otsailaren 2an "Riomundo" liburuaren aurkezpena, Jon Maiarekin.
20:00etan, Alondegian.



MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Soldadu, Laratxetik Melillara

ABELIN LINAZISORO

Non egin huan soldadutza?

Laratxen. Afrikan. Moruak El Harach eskribitzen zien, baina espainolak Larache eskribitzen zien. Laratxetik Melillara eta bietan ibili nitxuan. Laratxeko paoletik barko amerikanoak pasatzen ikusten giñitien, bigarren gerra mundiala oraindik bukatu gabe zeoan-eta. Gure destakamentua paol baten azpian zeoan, Zumaiko Talaipeko hortan eongo bagina bezela eta goitik, paoletik, ikusten ginitien barkuak.

Zumaiatik harainoko bidea nola egin zenuten?

Jo! Ez huan biaje ona izan! Ni 1.942-ko kintakoa nauk. Afrikara, ez zekiat sortean hala tokatuta edo nola, baina Gipuzkoatik bakarrik 300 bat jun gitxuan eta beste hainbeste Bizkaitik. Izugarrizko jendetza bildu huan gu despeditzera Donostiko Norteko estazioan. Jendearen txalo artean arratsaldeko bostetan sartu giñuztean gaudua eramateko moduko bagoi zaharretan. Animaliak bezela jun behar izan ginien Venta de Bañosera ailegatu ginan arte. Han perola zahar batetik ura ematen zun arroza eman zigutean. Eskerrak etxeok emandako janaria gendun! Ingurura hurreratutako ume pilo batek jan zian arroz hura. Piper lata hutsakin etorri hitxuan janari eske. Badakik, gerra ondorengo gosetea. Venta de Bañosetik Algeziraseraino hiru egun ein ginien ia ezer jan gabe. Han, berriz, beste inon tokirik ez eta zezen plazan



*“Perola zahar batetik
ura ematen zun arroza
eman zigutean.
Eskerrak etxeok
emandako janaria
gendun”*

sartu giñuzten. Gaua oso iluna zeoan eta halako batian gutako batzuek poxpoloa piztu die. Jo! Hasi bazian hasi zian! Derrepente poxpoloak, txiskeroak, linternak... zientoka azaldu hitxuan eta... bat-batean tronpeta soina eta soinujole bat hasi hitxuan jotzen. Gure kantak! Hura poza dana! Batek biba Rusia! Eta besteak gora Euzkadi askatuta!, kriston gozamina izan ginien!

Algecirasen denbora luzean egon al zineten?

Ez. Algecirasetik bakoitza bere destinaora jun gitxuan. Ceuta, Melilla, Laratxe... Azkeneko destino honetakoak giñanak Tanger-etik barrena jun

gitxuan. Etxetik erten nuenetik ez nian ia bate lorik ein eta barkuaren kubiartan etzanda ein nian lo. Seko.

Gure destinoan oheak txintzez beteta zibitian eta burua ezin ginien atera manta azpitik moskitoz josita zeolako.

Zer moduz ematen zizuen jaten?

Desastria! Oso gaixki. Etxetik bialtzen ziguten diru apurra jasotzeko amorratzen eoten gitxuan. Benetako gosea pasa ginien. Gose kontuak asko zaudek. Batian jatekoa oso txarra zeolako, eman zioat buelta platerari eta kutxariakin hasi nauk tanborrada jotzen. Komedoreko danak ulertu zien hura protesta zala eta 500 soldadu batera hasi gitxuan kutxaria plateraren kontra jotzen. Hura ejercito espainolentzako eta agintearentzat insultoa zela eta kapitainak jakin



nahi izan zian zein izan zan tanborra jotzen hasi zana, baina ez zian arrastorik atera. Hilabeteko arrestua kalera erten gabe izan ginien eta hortan bakarrik geatu zanian, gustora. Beste batian Gabon egunian arkume errea

atera zien jateko, baina arkume ustela huan. Hura ez zeoan jaterik eta inork ez ginien jan. Gabon egun hartan arratsaldean kapitainak bere etxera konbidatu gintuen lagun bat eta biok kafia eta kopa hartzera. Hasi huan

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana
Ekoagendegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

AIZPURUA
LIBRURUTEGIA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

kapitaina berriketan: Gerra garaixan herrietan zer ein zian, euskaldunak fitxatuta geundela eta horrelakoak esaten, nik, berriz, tonto plantak eiten, horrelako ezer ez nekiela, esan nitxuan. Eta hark, orduan: Canónigo! No me joda! Que sha zabemo que tú también ere un gudari!

Zergatik Kanonigo?

Kapitain hau oso xelebrea huan. Andaluza. Eskola gabia. Galoiak gerran irabazi zituena. Begiko hartu niñun. Canónigo arpegia neukala esaten zian. Egun batian esan zian: Yo quería coherte para azitente, pero tú no vale pa lo que yo quiero. Ere demaziado fino. Bere botak neuk konpondu behar izaten nitian eta beriak ez ezik baita etxeko danenak ere. Igande bazkalondo batian etorri zikak kapitainaren asistentea eta esan zian: Hoshe! Er capitán me ha disho que a ver zi ha arreglao lo zapato de zu hija. Egun hartan, ordea, Larachekeo herrian pelikula euskaldun bat, bueno Euskal Herrian girotuta zegona, botatzen zien eta nik hara jun nahi nian. ¡Qué contenta estoy!, zian titulua eta Ana Mariscalek eiten zian lana. Asistenteari esan nitxuan: Dile al capitán que esta tarde hechan una película para los vascos, que tengo la entrada en la mano y que ya le arreglaré mañana. Eta hark: Tú verá lo que hase. Honela,

Zumarrágako lagun bat eta bixok jun gitxuan zinera. Kuartelera bueltan gatzela, kapitaina guardian zeoan bere sable eta guzti. Ikusi natxiok urrutitik eta: Canónigo! Vén acá pa cá! 50 metro-edo zibetian hura zeon lekura eta eskuakin eta sabliakin keinuak eiten hasi huan, eozer egiteko prest

*“Kapitainaren botak
neuk konpondu behar
izaten nitian eta beriak
ez ezik baita etxeko
danenak ere”*

zeola nei adierazten bezela. Ailegatu gaitxuk berena eta: ¿Por qué no me ha arreglao tú los sapato de mi hija?, eta za!, sablia atera zian. Nik ospa! Kapitainak, me cago en la burra que te pазó el sharco!, esanez nire atzetik hasi huan. Alperrik. Ihesika nijoala noizean behin atzera beitzen nian, kapitaina zaharra huan eta neka-neka einda gelditu ein huan: ¡Canónigo! Mañana te presenta a mí!, diarra ein zian. Ez zian kastigurik eman. Zapatak konpondu eta bale.

Zer motatako pelikula zen ¡Qué contenta estoy!, delako hori, ba?

Pelikulako protagonista donostiarra huan eta Donostian bertan zeoan filmatuta, aktorea ere, Beorlegi, Donosti bertakoa zala uste diat. Neska, lehen ere esan diat, Ana Mariscal.

Beste zerbait berezirik soldadutza-koa?

Santixo egun batian kaballeriako eguna huan eta edariakin pixkat poztuta bildu gaitxuk soldau mordo bat patioan, gehienak euskaldunak. Zelebratu ein behar gendula eta nik banian txistu bat hara eramanda eta hasi nauk jotzen, batian fandangoa, bestean ezpata-dantza eta baita Gora Euzkadi, deitzen giñun kanta ere. Laster asko etorri huan sarjentu bat, komandantearen partetik ofizialen salara presentatzeko esanez. Bildurrak akabatzen jun nitxuan, baina ofizial danak txispa-txispa einda zeudean. Txistua ez zien ezagutzen eta nolakoa zan jakin nahi zien. Kantak ere ez zitien ezagutzen. Baina haien artean bazeoan teniente katalan bat eta nei begira parrez-parrez buruakin baietz ein zian. Kantak ezagutzen zitula esaten bezela. Komandanteak, ardo zuri ederra, puro bat eta bost duro eman zidan. A zer lasaitua hartu nuen!

Zenbat denborako soldadutza izaten zen orduan?

CROISSANTERIA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak
* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa
Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona
burdindegia
Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

“Plazan dantzan ari ginala kobradorea etortzen huan eta paparrean orratzaz katiatuta paper bat jartzen zian”



Nire anaixa Xabin ni baino bi urte gazteo dek eta ni soldautzan nitzan bitartean nire anaixak soldautzara juteko abixua jaso zian. Horrek nei prorroga bat eskatzeko aukera ematen zian. Kontua dek anaixa soldautzara juteako ni etxean nintzala. Eskerrak horrei nik bi urte ein nitian, baina nere lagun danak lau urte ein zitien. Gure aittak ere lau urte ein zitian Afrikan soldautzan, baina gerran, e? Gurugu mendi famatuan.

Lehen esan dek soldadutzatik bueltan hasi hintzela antzerkian lanean. Neskatan ere, dantzan-eta, ibiliko hintzen, ezta?

Bai. Pixkat bai. Gaiztotzen hasita gitxibitian eta pasadobleak eta horrelakuak dominatzen ginitian. Dantza neguan Goiko Plazan eta udan Beheko Plazan izaten huan. Goiko Plazara Elgoibarreko jazz-bana etortzen huan eta han ibiltzen gitxuan dantzan. Jazz-bana jotzen zun hoixetako bat non ikusiko eta gogo-jardunak eitera jun giñan Uliako etxe batean! Aibadio! Hemen elgoibartarra!, esan nitxuan. Kriston elementua huan. Plazan dantzan ari ginala kobradorea etortzen huan eta paparrean orratzaz katiatuta paper bat jartzen zian. Parejako pezeta bat kobratzen zula uste diat. Elgoibarrekoak dirua ateratzen zutela ikusi eta

Zumaiko musika-bandako talde bat bildu huan. Agustin Iturain bajua-kin, Jontxu Uranga tronpetakin, Juanito Goiko sasafoiakin... Bueno, lau edo bost lagun juntatu hitxuan jazz-bana jotzeko. Juanito izugarrizko sasofonista ona huan. Egun batzuetan jo ere ein zien, baina ordurako Elgoibartarrak fama ona hartuta zien eta laga ein behar izan zien.

Gero andregaixa egin huan. Ezkondu hintzen... Nola egin huan Aldabako andregaixa?

Honea, Erreketenera, Etxabe IV-nea etorri huan neskame. Zenbat andregai erten ote dute Etxabe IV-netik eta Hotel Zumaya-tik! ■



Definición: 10 años, 2000 Euros. Tel: 943 143089. ekin@telefonos.net

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Julene Azpeitia sariak

ITSASO IBARRA

Otsailaren 3an izango da sari banaketa. Han izango dira "Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketa"-ko sariak irabazi dituztenak: Agustín Arrieta, Xabier Artola eta Igor

Albizu. Guk 1. saria eta zumaiar onenaren saria jasoko dutenekin hitz egitea lortu dugu. Honelaxe erantzun diete jator-jator gure galderei:

igor albizu

zumaiarra eta errenteriarra

agustin arrieta



Igor Albizu Florez, M^a Angeles eta Manuelen semea, Iratxeren anaia, amona Ana Mariren iloba, Jaioneren mutila, parrandak eta barreak No Soluxionekoekin egiten dituen omen da.

Zer erlazio du zure lanbideak idaztearekin?

Elektrizitatearekin erlazonaturik dago nire lanbidea, irakasle batzuetan eta proiektuak edo ikerkuntza lanak egiten besteetan. Beraz, literaturarekin erlazio gutxi dauka, itxuraz. Baina, egia esan, dezente idaztea tokatu izan zait, artikulu eta txosten teknikoak, batez ere. Oraindik ez dut bi motor elektrikoren arteko maitasun istoriorik idatzi, baina batzuetan irudimena dezente erabili behar izaten dut, fikzio dosi txiki batekin batera.

Zerk inspiratzen zaitu?

Jakingo banu esango nizueke. Denetik pixka bat. Ipuin hau idazterakoan ideien zain ipini naiz. Eta etorri dira, batzuetan gehiago besteetan gutxiago. Gustatu zaizkidanak gorde, paperarean ipini eta listo.

Arkatza eta papera etengabe gainean eramaten duten horietakoa al zara?

"Ipuin gehiena paperaren edo ordenagailuaren aurrean horretara jarrita atera da"



Filosofiaren zalea, filosofia irakaslea, errenteriarra, erdi palentziarra, erdi baztandarra, liburuzalea, kirolzalea... Hori guztia omen da Agustín Arrieta.

Zer erlazio du zure lanbideak idaztearekin?

Filosofia irakasteaz gain, filosofiaz idazten dut erregulariki. Beraz, boligrafoa eta folioa ez dira sekula urrutiegi egoten. Dena dela, elkarrengandik ondo bereizten ditut filosofiaz idaztea eta ipuinak idaztea. Lehenengoa lan teorikoa da; bigarrena, ordea, emozionalagoa da.

Zerk inspiratzen zaitu?

Nire esperientzia murrizaren arabera (murrirtza hiruzpatalau urte baino ez baitaramatzat ipuinak idazten), ipuin bakoitzak bere jatorria dauka. Zenbaitetan gogoan iltzaturik geratu zaizun pertsona bat edo irudi bat edo gertakari bat izan daiteke. Besteetan, barruan duzun egonezina deskorapilatu nahi duzu. Auskalo.

Esaterako, 'Kalezuloetan barrena' ipuinak badu jatorri zehatza, jaiotze data zehatza, Elliott Murphy kantariaren emanaldi bat, hain zuzen.

Ipuina abian jarri eta gero, oroimena, irudimena, adimena, zentzumenak eta 'men' guztiak ipuinaren zerbitzura jartzen dira, baita egiten dituzun irakurketak ere.

Lehen bai, larunbat gauetan neskei telefonoa eskatzeko. Baina orain debekaturik daukat. Eta idazteko, ba, egia esan, ez. Ipuin gehiena paperaren edo ordenagailuaren aurrean horretara jarrita atera da. Baina gertatu zait lane-
tik etxera edo etxetik lanera autobusean ideia bat etor-
tzea eta paperik gabe egotea. Horrelakoetan, ez ahazteko,
saiatu naiz berehala idazten etxera edo lanera iristean. Lo
hartu aurretik ohetik jaiki ere egin naiz zenbaitetan, eto-
rri zaidan ideia txikiren bat idaztera.

Zein da zuretzat idazteko unerik egokiena? Eta irakurtzeko?

Idazteko, ideiak etortzen uzteko, bakarrik eta lasai egon-
da nahikoa. Nik une hori autobusean aurkitzen dut etxe-
ra bueltan, afaldu ondoren ere bai astean zehar, eta aste-
buruan ere bai bilatuz gero.

Normalean ez dut nahita unerik bilatzen irakurtzeko.
Irakurketa ezer egiteko ez daukadan uneak betetzeko era-
biltzen dut. Azkenaldian autobus edo trenean bakarrik
irakurtzen dut. Telebista izorratuko balitz...

Idazleek asko irakurtzen omen duzue. Zein liburu duzu orain esku artean?

Eskerrik asko, baina idazleak Euskal Hizkuntza eta Lite-
raturako liburuetan agertzen direnak dira: Bernat Etxe-
pare, Axular, Txomin Agirre eta koadrila hori. Nire izena
nik erabili nuen liburuan bakarrik agertzen da, beraz ez
nuke esango idazlea naizenik. Bestela gutxi irakurtzen
dut. Eta ez ez zaidalako gustatzen, baina nahiko alferra
naiz. Iaz lau liburu irakurri nituen, eta aurreko urteetan
gutxiago. Orain Roge Blascoren "Levando Anclas" ira-
kurtzen ari naiz.

Idazten jarraitzeko asmorik bai?

Denbora-pasa polita da. Ea aurtengo Julene Azpeitia
lehiaketarako beste ipuin bat osatzen dudan.

"...ipuin bakoitzak bere jatorria dauka... Esaterako, 'kalezuloetan barrena' ipuinak, jaiotze-data zehatza dauka: Elliott Murphynen emanaldi bat"

Arkatza eta papera etengabe gainean eramaten duten horietako al zara?

Esan bezala, nire lana dela eta, papera eta boligrafoa (eta ordenagailua) beti gertu daukat.

Zein da zuretzat idazteko unerik egokiena? Eta irakurtzeko?

Nik egunero denbora luze ematen dut TOPOan, joan-
etorrian. Denbora hori litera-
tura irakurtzen pasatzen dut.

Afalostea ere horretarako erabiltzen dut.

Duela gutxi hasi naiz ipuinak sistematikoki idazten eta afalostean idazten ditut lerro gutxi batzuk, edo astebu-
ruean.

Idazleek asko irakurtzen omen duzue. Zein liburu duzu orain esku artean?

Irakurketari dagokionez, literatura menu handi bat da. Ia-
ia estilo guztietako idazleak ditut gustuko; nolako aldar-
tea, halako irakurketa.

Orain dela gutxi Patricia Highsmith-en 'Ripley trebea'
bukatu dut, eta aldi berean egile horren zenbait ipuin
zoragarri irakurtzen aritu naiz.

Azken egun hauetan 'Lady L.' irakurtzen ari naiz,
Romain Gary-rena. Halaber, Sherwood Anderson-en
'Winesburg, Ohio' ipuin bilduma mahai gainean daukat.

Idazten jarraitzeko asmorik bai?

Bai, bai. Istorioren bat beti daukat buruan jira-biraka.
Batzuk paperera pasatzen dira, beste batzuk hor nonbait
geratzen dira. Gutxi idazten dut, baina etenik gabe.

Kapaia
Taberna

Enlivero Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

STIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3


943 860151

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97



HAIZE GALARRAGA

Aurreko Baleiken agindu bezala, Veronika Decides To Die taldearekin elkartu gara beraiei buruz zerbait gehiago jakiteko asmoarekin.



Orain dela pare bat aste Ondarroako Gaztetxean eman zenuten zuen lehenengo kontzertua. Nolatan Ondarroan?

Xirika aldizkariaren jaia zela eta jo genuen Lukas Prest eta Midnigh Murder taldeekin batera. Zuzeneko lehenengo esperientzia bezala ondo egon zen. Zumaiar piloa joan zen gu ikustera eta oso gustura geratu ginen.

Hemendik aurrera zer intentzio dituzue?

Orain geldialdi txiki batean gaude, Aitorrek azterketak bukatu bitartean. Inoiz baino argiago daukagu bakoitzak taldean daukan papera, zer edo zer grabatu nahiko genuke, ahalik eta kontzertu gehien eman eta gure musika pixka bat ezagutarazi.

Nahiko talde jendetsua zarete (6 lagun). Zer moduz moldatzen zarete?

Lokalean nahiko gaizki, justu samar sartzen gara denok batera eta gainera hiru lokaletan hamabi talde baino gehiago gaudenez traste dexente pilatzen dira. Gero,

Veronica Decides To Die

Ahotsa: Petxa

Gitarrak: Aimar (Pribatu Shock, Nidel) eta Jijas

Baxua: Unai (Kontra)

Bateria: Aitor (Azken Taupada)

Perkusioa: Bon (Itaka)



betiko hezetasunaren arazoa dugu... Ea Udalak lokal duin batzuk noizko egiten dituen.

Gehienak lokal hauen inguruan jotzen ibilitakoak zarete. Zer ekarpen egin dizuete aurretik zenituzten esperientziak?

Aimar: Nik orain arte jo izan dudan musikak zerikusi gutxi du Veronikarekin.

Gitarra hobeto dominatzeak, ordea, lehen jo ezin nituen riff-ak jotzen lagundu dit.

Unai: Nik lehendik antzeko musika jotzen nuen, death metala gehiago, agian. Hala ere, aldaketa handi samarra izan da, lehen gitarra eta orain baxua jotzen baitut.

Petxa: Nik esperientzia gutxi edo batere ez nuen abesten. Strawberries taldean koro popero batzuk egin izan ditut.

Zer moduz moldatu zinen bat-batean metal talde batean abesten hasita?

Petxa: Ni marruak botatzen hasi nintzen espontaneoki. Gainontzekoak: Ederki abesten du, gure musikarekin armonian. Kristoren sorpresa hartu genuen abesten hasi zen momentutik. Kantante peto-petoa da eta oso gustura gaude berekin.

Musika aldetik, Roadrunner inguruko taldeen influentzia nabari daiteke.

Bai, Chimaira eta Slipknot izan daitezke gure erreferenteak jotzeko orduan, nahiz eta guk gero denetarik entzuten dugu, reggeton eta horrelakoak izan ezik. Adibidez, Sepultura, Mudwayne, Jaco Pastorius, Tool, Mars Volta, Canibal Corpse, etab.

Nola lortzen duzue soinu bortitz hori?

Soken afinazioa oso grabea erabiltzen dugu. Horretaz gainera, soinuari sendotasun eta indar handiagoa emateko, perkusioa erabiltzen dugu. Hasiara batetik oso argi geneukan ez genuela Soulfly-ren antzeko soinu tribal bat lortu nahi perkusio afrikarrak edo antzekoak erabiliz. Guk indarra eman nahi diogu abestiei, erritmikoki saturatuz.

Hemen dauden metal taldeek musika jebiagoa eta komertzialagoa egiten dute.

Bai, gure musika ez da Euskadi Gaztean entzuten, eta are gutxiago ingelesez abestuta.

Zertaz doaz, ba, letrak?

Denetik pixka bat kontatzen dugu. Adibidez, eromenari buruz hitz egiten dugu. Hala ere, letra guztiek bigarren zentzu bat dute, ez dira zuzen-zuzenak.

Nondik atera duzue taldearen izena?

Petxa: Paulo Coelho brasildarraren "Veronika decide morrer" liburua irakurtzen ari nintzela, izenburuaren ingelesezko itzulpena gustatu zitzaidan.

HUNTERS & PREYS
Beware who you trust, untrust all you see,
Find a disguise...a new skin that can't be peeled.
Build your haven...four walls with no doors,
A safe place...away from their claws.
Sometimes, I feel free flying... but now, I feel like dying.
They come for us, we have to scape,
Let's go now, before it's too late.
Wake up! There's no time to sleep... we're forced to play hide and seek.
Hunters & preys: inside this game we live
...I feel like dying...



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio Beobide 3, tfn. 943 019 869

"Euskara Txanpan" proiektua aurrera!

IZASKUN URBIETA

Abenduko zenbakian agertu zen legez, Zumaiaiko merkatariek "Euskara Txanpan" izeneko proiektua aurrera ateratzea lortu dute. Proiektu honen helburua gure herriko denda eta tabernetan euskararen erabilera sustatzea eta indartzea izango da.

Horretarako, lehendabizi Zumaian euskararen egoera nolakoa den azaldu zuten diagnostiko baten bidez. Hurrengo pausoa, berriz, aurtengorako ekintzak zehaztea izan zen.

Proiektuaren berri zehatza goa izateko, Lore Gartziaarena eta Elvira Unanue dendariekin hitz egin dugu. Baina lehendabizi, Elhuyar Aholkularitzako teknikariek eginiko diagnostikoaren emaitza azalduko dugu.

- Zumaia, oro har, herri euskalduna da, zenbait esparrutan egiten den euskararen erabilera, ahozkoa zein idatzizkoa, deskribapen horrekin bat ez badator ere.

"Zumaia, oro har, herri euskalduna da, deskribapen horrekin bat ez badator ere zenbait esparrutan egiten den euskararen erabilera, ahozkoa zein idatzizkoa."

Azken finean, Zumaia herri euskalduntzat jo behar dugu, Euskal Herrian beste herri askok ez bezalako egoera soziolinguistikoa bizi baitu. Baina aldi berean, euskararen normalizazio bidean zer eginik ere erakusten du eta herri euskalduna izateagatik, eskaintzen dituen aukera guztiez baliatu behar du.

- Egoera soziolinguistiko horren daturik baikorrena euskararen ahozko ezagutzarena da, eta aurrerantzean ezagutza gero eta zabalagoa izango dela aurreikus dezakegu, gainera, haur eta gazteen ezagutzak biztanleria osoa hartzen baitu.
- Daturik ezkorrenak berriz, idatzizko ezagutza nahiz ahozko erabilerak dira:
 - Idatzizko ezagutzari eta erabilerari dagokionez, egungo helduek euskaraz idazten moldatzeko zailtasunak daukate eta horrek erabat baldintzatzen dute euskaldun hauek euren jarduera euskaraz garatzeko duten aukera. Gazte eta haurrengan, ordea, errealitate hori zeharo ezberdina da.
 - Ahozko erabileran, haur eta zaharren ahotan entzuten da euskararik gehien. Erabilera mailari dagokionez, egoerarik kaxkarrena helduena (25-59) da, hau da, gaur egun Zumaiaiko haur eta gazteen guraso direnena. Baina kezkarik handie-



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00
ostiralak 11:30-19:00
larunbatak itxita
alde zurretik deitu
Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etkezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

didatzeko baimen guztiak





na gazteen (16-24) hizkuntza erabilerak eragiten du. Lehendabizikoek (helduek) euskararen erabilera indize-rik baxuenak ematen digute, baina bigarrenek duten ezagutzatik egiten duten erabilerara dagoen jautzia oso nabarmena da. Gazte hauek hizkuntza ikuspegitik bizi dituzten baldintzak eta dituzten aukerak kontuan harturik (euskarazko eskolaratzea, euskarazko komunikabideak...) motibazioaren esparru zabalak huts egiten duela ondorioztatu beharra dugu.

Ikusten den bezala, emaitza argia da. Zumaia herri euskalduna da, baina euskararen erabilera urria da, batez ere arlo batzuetan.

Lore eta Elvira dendariekin hitz egiterakoan ideia bikaina eta interesgarria zela esan ziguten eta plan hau guztientzat irekia zegoela. Hau da, bai merkatarientzat (nahiz eta merkatarien elkargoan ez egon), baita nahi duten bezero guztientzat ere.

Beste iritzi batzuk

Herriko zenbait dendatan plan honi buruz galdezka jardun dugu: ea badakiten zein helburu dituen "Euskara

Hastapenak

Orain dela 3 urte gutxi gorabehera, Udalak euskararen egoera aztertu zuen arlo guztietan. Orduan konturatu zen merkataritzaren sektorea zela euskara gutxien erabiltzen zuena, eta lehenago aipatu dugun diagnostikoari kasu eginez, euskararen plan hau hasi zen martxan.

Elhuyarko teknikariekin zenbait bilera egin ondoren, proiektu hau martxan jarri zen. Batzarretan, hainbat gai buruz hitz egin zuten: dendariak beraiek zuten helburuez, euskara erabiltzeko arazoez, ekintzez eta abar. Bilera hauen lehenengo emaitza proiektu honen aurkezpenean erakutsi zen potea izan da.

Momentuz plana geldirik egon arren, aurtengo beste zenbait ekintza prestaturik daude. Besteak beste, ikastaro labur batzuk martxo inguruan (bai merkatariei, bai bezeroei zuzenduta) eta hiztegi batzuk.

Ikastaroak norberaren euskararen mailaren arabera banaturik egongo dira. Esan beharra dago, bestalde, klaseak merkatariei begira egingo direla, azken finean, merkatariei eta bezeroen arteko komunikazioa ahalbidetzea baitu oinarri.

Hiztegiak ere bakoitzaren beharretara egokiturik egongo dira. Hau da, hiztegi batzuk dendariarentzat, beste batzuk ostalarientzat eta abar.



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Esperientzia pertsonala

2 dendari hauek adierazi digutenez, jendeak normalean euskaraz egiten die. Hala ere, Lorek aipatu duenez, "Zaharrek asko egiten dute euskaraz, baita oso gazteek ere. Arazoa, gure adineko jendearengan dagoela uste dugu. Guk dena gaztelaniaz ikasi genuen eta askok, ohituragatik-edo, gaztelaniaz hitz egitera jotzen dute". Elvirak, berriz, "Askok nire itxuragatik edo gaztelaniaz hitz egiten didate eta gero harritu egiten dira euskaraz badakidala jakiten dutenean. Kartelak ere jartzekotan egon gara esanez euskaraz badakigula". Azkenik, plan hau jarraia dela esan digute. Hau da, pixkanaka hobetzen joango dena eta aldaketak egiten, betiere gizartearen beharizanetara egokituz. Merkataria eta bezero guztiei euskaraz egitera animatzen diete, baita plan honetan parte hartzera ere.



txanpan" proiektu honek, zer iruditzen zaien, ea parte hartuko duten...

Denek plan honi buruz zerbait entzun dute eta ohar-tu gara gehienek zertaz doan ere badakitela. Hau da, euskararen normalizazioa bultzatzeko ekintza bat dela.

Beharrezkoa eta egokia dela ere azaldu digute. Ikastaroak antolatzea oso interesgarria dela aipatu dute, gehienbat. Askok diotenez, kartelak idazteko garaian euskaraz

nola den zalantzak izaten dituzte.

Beste batzuk, aldiz, euskaraz oso ondo moldatzen dira, bai idatziz, bai hitz egiten, eta ondorioz ez dute ikastaroen beharrik izango. Baina, hala eta guztiz ere, oso ideia ona iruditzen zaie iniziatiba hau.

Kontuak kontu, plan honen hasiera, behinik behin, arrakastatsua izan dela esan daiteke. Ea horrela izaten jarraitzen duen eta jendeak parte hartzen duen.

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARozTEGIA

Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Alberdi

Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA

Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI

SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

ZINE FORUM

urtarrilak 26, osteguna, gaueko 10:15ean

American Splendor**Zuzendaria:** Shari Springer Berman eta Robert Pulcini**Aktoreak:** Paul Giamatti, Hope Davis, Madylin Sweeten

Harvey Pekar Cleelandeko erietxe batean artxibo lanetan jarduten duen pertsona arrunta da. Bi ezkontzaren porrota jasan du eta izaera ezkorreko gizon marmartia da. Kasualitatez, Robert Crumb postalen diseinatzailea eta musikazalea ezagutuko du.

Urte batzuk geroago, Crumb famatu bihurtzen da bere komiki undergroundei esker, eta, hori ikusita Harvey bere eguneroko bizitza normala azaltzen duen komikia aurkeztera ausartuko da.

Horrela sortu zen American Splendor, Estatu Batuetako langile klasearen bizitza era ironikoan azaltzeko balio duen komikia (lehenbiziko zenbakia 1976. urtean argitaratua). Genero autobiografikoan aitzindari izan zen lan honek arrakasta izugarria lortu zuen eta Harvey kultuko gurtzeko pertsona zuen 80ko hamarkadan (telebistako elkarrizketa programatan ere maiz azaldu zen).

Istorio hau zinemara eramateko ahaleginak aspaldi hasi ziren, baina Pekarren lanaren mamia irudien bidez era egokian azaltzeko zailtasunak atzera bota izan du behin eta berriz proiektua. Azkenean, 2003. urtean Sundanceko zinemaldian aurkeztu eta epaimahaiaren sari nagusia irabazi zuen film bikain honek gauzatu du ideia. Originaltasuna eta imajinazioa alde guztietatik duen lana da. Komikigilearen biografiatik abiatuz eta komikietan azaltzen diren istorioak oinarritzat hartuz, dokumentala, fikzioa eta animazio munduaren arteko nahasten da pelikulan, pertsonaia bera hiru era desberdinetan azaltzeraino: errealitatean (Harvey bera), aktoreak antzeztua (Paul Giamattiren lana goraiatu beharrekoa da) eta komikian marraztua.

otsailak 9, osteguna, gaueko 10:15ean

La pequeña Lola**Zuzendaria:** Bertrand Tavernier **Aktoreak:** Jacques Gambin, Isabelle Carré, Bruno Putzulu

Europar haurrik izan ezin duten bikoteak hirugarren mundura joan ohi izan direla eta honek mila

eta bat arazo sortzen dizkiela ez da kontu berria. Tavernier zuzendari frantziarrak gai hau bere egin zuen eta Kanbodiara joanez, haur bat semetzat edo alabatzat hartu nahi duten bikote baten arazoak agertu zituen. Filma, beraz, bikote honen, eta inguruko beste hainbat bikoteen, ikuspegitik ikusia dago. Zenbat oztopo, traba, eragozpen eta koska gainditu behar duten euren helburua lortu ahal izateko. Elkar maite duten eta haurra nahitaezkoa dutenen arazoak maitasun handiz daude erakutsiak, Kanbodiako ingurunea, ekaitzak, kaleak, txabolak eta jendea, begirune handiz, erakusten dizkigun era berean. Ikusiko dugu, baita ere, ez dutenek, hirugarren mundukoak, dutenei, lehenbiziko mundukoak, edozeren truke dirua eskatzea oso ohikoa dela. Filma samurra, gozoa eta ederra.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

IKASTAROA

Kzgunea Zumaia 943862866
 - Otsailaren 6tik 17ra, 16:00etatik 18:00etara.
 - Otsailaren 17an (ostirala), 18:00etatik 20:00etara, eta Martxoaren 24an (ostirala), 11:00etatik 13:00ra, It Txarteleko azterketa eguna da.
 Kultur Etxeak antolatuta: 943-861056; foronda@zumaia.net
 - Sabel dantza ikastaroa: larunbatetan, urtarrilaren 28tik apirilaren 8ra. Matrikula: 30 euro.
 • 10:30etatik 12:00etara Hasiberriak
 • 12:00etatik 13:00etara Hobekuntza
 Izan emateko epea: urtarrilaren 23a.

IRTEERAK

Turismo Bulegoak Antolatuta: 943-143396
 - Urtarrilaren 28an: Sestao-Bilbao, zumaia-arentzat irteera kulturala.
 - Otsailaren 18an: IPARRALDEKO Gazteluen Ibilaldia.
 - Otsailaren 25ean: ZUMAIA

KULTURALA.

- Otsailaren 26an: ZUMAIA-DEBA Trekking.
 - Otsailaren 19an eta martxoaren 12an, 25ean eta 26an: ZUMAIAKO NATURA: Algorri, itsaslabarra...
 Kultur Etxeak antolatuta: 943-861056
 - Martxoaren 2an: Donostiako Kursaal aretora irteera, ABBA The Show ikustera. Sarrerak kultur etxean, otsailaren 15etik 24ra.

DEIALDIAK

- INAUTERITAKO KARTEL LEHIAKETA: Inauteriak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa. Epea: otsailaren 4a. Oinarriak kultur etxean.
 - BALEIKEREN BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKA AZOKA: Otsailaren 10etik 12ra, Alondegian. Utzi zure liburu, disko eta abarrak Turismo Bulegoan, otsailaren 4a baino lehen.

URTARRILA

20, ostirala
 22:00etan, "Larru haizetara" antzerkia, Aita Mari aretoan.

26, osteguna
 22:15ean, Zine forum saioa -"American Splendor" (J.B.)-, Aita Mari aretoan.
 29, igandea
 12:00etan, "Eugenia ardiaren bidaia" haur antzerkia, Aita Mari aretoan.

OTSAILA

2, osteguna
 20:00etan, Jon Maiaren "Riomundo" liburuaren aurkezpena. HITZAK eta Baleike Kultur Elkarteak antolatuta, Alondegian.
 3, ostirala
 19:30ean, Julene Azpeitia lehiaketako sarien banaketa. Jarraian, EZ DOK HIRU taldearen "Lezio bat ostrukari buruz" antzezlan.
 9, osteguna
 22:15ean, zine forum saioa -"La pequeña Lola"-, Aita Mari aretoan.
 10etik 12ra
 BALEIKEK antolatuta, BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKOEN II. AZOKA, Alondegian.
 19, igandea



Irteera: Sestao-Bilbao

Turismo bulegoak antolatuta, urtarrilaren 28an, zumaia-arek Sestao ingurua ezagutzeko aukera izango dute.

12:00etan, TXALO taldearen "Kantervilleko mamua" haur antzerkia.
 22, asteazkena
 17:30ean, Haur Liburutegian, ipuin kontaketa: "Misterioak", APIKA taldearen eskutik.
 23, osteguna
 22:15ean, zine forum saioa
 -"Flores Rotas"-, Aita Mari aretoan.
 24tik 27ra:
 ZUMAIAKO INAUTERIAK (Ikusi egitaraua)
 27, astelehena
 15:00etan eta 17:00etan, haur jaialdia: Pirritx eta Porrotx, "Maite zaitut".



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
 - Praktika eta azterketak Azpeitian
 - GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
 TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20



LEIZE
 taberna

Juan Belmonte, 6



IZETA
 Urumea, 6 Tel. 943 862083

Aknearen aurkako Fototerapia

zure
azala
leun-leun
goza
dezazun

Fotodepilazioa
Fotogaztetzea
Aknearen aurkako Fototerapia

Depitotal[®]

Tel. 943 86 13 22
Bonifacio Etxegarai z/g
Zumaia

Coro
Prieto
Estetika
Zentroa

BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKO

II. EKINAKO

Otsailaren 11 eta 12an Oxford aretoan

*Lagundu
Saharako herriari!!*

**Zuen liburuak, diskoak
eta pelikulak
Turismo Bulegoan utz
ditzakezue otsailaren
4a baino lehen**

BALEIKE
Bulegoa